

ERANSKINA: “Basaurin garapenerako eta sentsibilizaziorako heziketa-ekintzak garatzeko 2017ko udal diru-laguntzak emateko deialdia. Gizarte-politika Arloa, Lankidetzata Atala”.

DIRU-LAGUNTZA LERROA	GARAPENERAKO LANKIDETZA
DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUA	SENSIBILIZAZIO ETA GARAPENERAKO LANKIDETZA PROGRAMAK
Aurrekontu partida	11.2317.48164
Partidaren deskribapena	TA, garapenerako eta sentsibilizaziorako heziketa-ekintzak. Garapenerako lankidetzata eta immigrazioa.
Zenbatekoa	40.000,00 €
Diru-laguntza emateko prozedura	NORGEHIAGOKA

1. XEDEA:

- 1.1 Garapenerako eta sentsibilizaziorako heziketa-ekintzak izango dira Basauriko herritarrei, orokorrean, edo berariazko talde batzuei, bereziki, zuzendutakoak, baldin eta ekintza horiek txirotutako herrialdeen egoeraren ezaugarriei buruzko prestakuntza ematea (egoera horren arrazoiak, eta hango komunitateek egoera gainditzeko egiten dituzten ahaleginak ezagutaraztekoak), edo horien egoerarekiko sentsibilizazioa badute helburu. Basauriko herritarrengan konpromiso-jarrera solidarioagoak sustatu nahi dira, iparraldearen eta hegoaldearen arteko harremanak bidezkoagoak eta berdintasunezkoagoak izan daitezen. Era berean, txirotutako herrialdeekiko eta hango biztanleenganako elkartasuna eta kontzientziazioa bultzatzea eta, horrekin batera, zenbait balore sustatzea, hala nola: ekitatea; tolerantzia; diskriminaziorik eza; eta jatorri zein sorterri desberdinetako gizaki eta kulturen arteko elkartasuna.
- 1.2 Honako ekintza hauek hartzen dira kontuan, zehazki: a) sentsibilizazioa: epe laburrerako ekintzak, unean unekoak, herritar kopuru zabalagoari heltzeko lehenengo urratsa direnak; b) hezkuntza eta prestakuntza: epe laburrerako eta luzerakoak; helburu argia eta metodologia zehatza dutenak; eta egoeren kausak sakon aztertzen dituztenak; helburua izango da herritarrei horren garrantziaz ohartaraztea, ondoren, herritarrek ekintzak sor ditzaten; c) ikerkuntza: gizarte-ikerkuntzarako tresnak baliatzen dituzten ekintzak, beste ardatz batzuetan (esaterako, eragin politikoan) ekintzak garatzeko garrantzi berezia dutenak; eta d) eragin politikoa eta gizarte-mobilizazioa: ekintza horiek proposatu beharko dira, gizarte-, ekonomia- eta politika-egiturei eragiten dieten erabakietan eragina izan dezaten; eta, horrez gain, herritarren parte hartzea eta inplikazioa sustatu beharko dute.
- 1.3 Aurreko ekintzak hiru mailatan garatu daitezke: a) eremu formala: hezkuntza-erakundeek garatutako hezkuntza-prozesuak: erakundeek aintzatespen ofiziala izan behar dute, eta agintari eskudunek onartutako curriculumari jarraitu beharko diote; b) eremu ez-formala: praktika antolatutakoak, behar bezala zehaztuak eta berariazko talde batzuentzat diseinatuak; ez dira ikastegi ofizialetan emango, eta, hezkuntza-ekintzak bukatutakoan, ez da titulu edo ziurtagiri ofizialik emango; c) Eremu informala: asmorik gabeko ekintzak; ikaskuntza-prozesu etengabea eta bat-batekoa da, eta hezkuntza formaletik zein ez-formaletik kanpo dago (familian, aisia-taldeetan, etab.).

2. NORI ZUZENDUTA:

- 2.1 Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei, esate baterako: GGKEak, erlijio elkarteak, fundazioak eta horien pareko erakundeak, baldin eta haien estatutuetan, helburuetan, eginkizunetan edo txostenetan berariaz jasota badago garapenerako lankidetzatza.
- 2.2 Eskatzaileek Bizkaiko Lurralde Historikoan izan behar dute egoitza edo ordezkaritza iraunkorra, eta lehentasuna izango dute Basauri udalerrian daudenak (alegia, lehentasuna emango zaie proposamenen puntuazioa zehazterakoan). Ordezkaritza iraunkorra dela jotzeko, beharrezkoa izango da ekintzaren ordezkaritza edo kudeaketa partekatua zuzenean egiteaz arduratzen diren egitura esanguratsuak Bizkaian egotea, eta hori behar bezala egiaztatzea, dagozkion agiriaren bitartez.
- 2.3 Gutxienez, dagokion deialdiaren argitaratze-egunaren aurreko bi urteetan, eskatzaileak eratuta eta EAEko dagokion erregistroan inskribatuta egon behar dute (ahal dela, eta lehentasunez, Basauriko Udaleko Herritarren Parte-hartze Erakundearen Erregistroan, Modernizazio Atalean: Kareaga Goikoa 52. Tel.: 944 666 300).
- 2.4 Arestian aipatutako erakundeez osatutako partzuergoek ere eskabideak aurkeztu ahalko dituzte, betiere, aipatutako eskakizunak betetzen badituzte. Udalak bereziki sustatuko ditu partzuergoek aurkeztutako proposamenak: proposamena balioesteraikoan, puntuazio handiagoa emango die, eta handitu egingo ditu haien proiektuetarako onartutako aurrekontuen gehieneko zenbatekoen mugak.
- 2.5 Partzuergoko erakundeez beren gain hartuko dute proiektuaren erantzukizuna, eta helbide bakarra emango dute, espedientearen administrazio jakinarazpenetarako. Hitzarmen batean zehaztuko dira erakunde bakoitzak proiektuan duen partaidetzaren ehunekoa eta bakoitzaren eskubide eta betebeharrak, eta eskaera egiterakoan aurkeztuko da hitzarmen hori. Bertan, berariaz jasota geratu beharko da erakunde bakoitzak zuzenean erantzukizuna duela bere partaidetzarekiko, eta erantzukizun subsidiarioa proiektuaren osotasunarekiko.

3. DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA:

- 3.1 Eskaera orrian pertsona edo erakunde eskatzaileak aitortu beharko du ez duela onuradun izateko debekuetako bat ere (Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua jasotzen ditu debeku horiek), eta orri hori sinatu egin beharko du.
- 3.2 Hegoaldean garapenerako lankidetzarako edota Basaurin garapenerako/sentsibilizaziorako heziketarako proposamenei buruzko eskabide espezifikoak. Oinarri arautzaileen eranskinetan daude (informazio tekniko eta finantzarioa, eta eranskinak dituzte).
- 3.3 Erakundearen IFZren fotokopia.
- 3.4 Eskaera sinatzen duen pertsonak erakundearen izenean jardun dezakeela egiaztatzen duen agiria, eta ordezkari horren NANaren fotokopia.
- 3.5 Basauriko Udaleko Herritarren Parte-hartze Erakundearen Erregistroan inskribatuta ez dauden erakundeez, aipatutako agiriarekin batera, dagokion erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia eta erakundearen estatutuen fotokopia aurkeztu beharko dituzte.
- 3.6 Udalari ez bazaio baimenik ematen zerga obligazioak betetzeari dagozkion datuak eskatzeko: zergak behar bezala ordainduta daudela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira; zerga-administrazio eskudunak urte horretan bertan emandako agiriak, hain zuzen ere.

- 3.7 Ez bazaio baimenik ematen Gizarte Segurantzako obligazioak betetzeari dagozkion datuak eskatzeko: erakundeak Gizarte Segurantzarekiko zorrik ez duela egiaztatzen duten agiriak, edo bere agindupeko langilerik ez duela egiaztatzeak, Diruzaintza Orokorra urte horretan bertan emandakoak.
- 3.8 Basauriko Udalak finantzatutako aurreko lankidetzak-ekintzei buruzko aitorpen sinatua. Ekintza horiek zein fasetan dauden jakinarazi beharko da (aribidean, amaituta, zurrizteko, edo Udalak jada zurrizteko onartu duen).
- 3.9 Udalaren diru-laguntzaren bat edo Udalarengandik bestelako ordainketarik inoiz jaso ez duten erakundeak ez dira Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta egongo; hori dela eta, emango zaien «Hirugarrenen Fitxa» aurkeztu beharko dute.
- 3.10 Gizarte-politika Arloak (Lankidetzak Atala) erakunde eskatzaileari beharrezko deritzon dokumentazio eta informazio osagarri guztia eskatu ahal izango dio, aurkeztutako eskaera egokiro ebaluatu eta horri buruz ebaizteko.

4. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

HILABETE, oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko biharamunetik hasita.

5. BALORAZIO IRIZPIDEAK:

Eskabideak baloratzeko honako irizpideei jarraituko zaie: a) proiektuaren kalitate teknikoa (30 puntu); b) eragileen gaitasuna eta harremanen kalitatea (35 puntu); c) genero-ikuspegia (15 puntu); eta d) aurrekontua (20 puntu). Irizpide bakoitzaren ezaugarri zehatzagoak eta baremoan duten eragina jakiteko, oinarri hauekin batera doan taula begira dezakezu.

6. DIRU-LAGUNTZEN INSTRUKZIOA EGIN, ETA HORIEI BURUZKO EBAZPENA EMATEKO ORGANO ESKUDUNAK:

Gizarte-politika Arloari (Kooperazio Atala) dagokio prozeduraren instrukzioa. Alkatetzarena izango da ebaizteko eskumena, Gizarte-ongizateko Informazio Batzordearen aurretiazko, nahitaezko eta loteslea ez den irizpenarekin.

7. EBAZTEKO EPEA ETA JAKINARAZPENA EGITEA:

6 hilabetekoa izango da eskaerak ebaizteko eta erakunde eskatzaileei jakinarazpema egiteko gehienezko epea, deialdi hau argitaratzen denetik zenbatzen hasita; hala egingo da onetsitako zein ezetsitako diru-laguntzekin. Ebaizpenak, bestalde, amaitu egingo du bide administratiboa.

Ebaizpema jakinaraziko da eskabidean adierazitako tokian, posta bidez eta jaso izanaren egiaztatgiriarekin.

8. ZURITZEKO EPEA:

Gehienez 3 hilabeteko epea egongo da emandako diru-laguntzak zurrizteko, diruz lagundutako proiektua amaitzen den datatik zenbatzen hasita.